

TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA GARATZEKO PROZESUA

LANTALDE POLITIKO TEKNIKOAREN AKTA

Eguna: 2022-01-17

Ordua: 17:00-18:00

Lekua: Tolosako Udala

PARTAIDEAK	
Tolosako Udaleko 3 zinegotzi (EAJ, EH Bildu, PSE) eta EH Bilduko orain arteko zinegotzia eskualdatzea egiteko	<input checked="" type="checkbox"/>
Asteasuko alkatea	<input checked="" type="checkbox"/>
Tolosako Asanblada Feminista (2 ordezkari)	<input checked="" type="checkbox"/>
Tolosaldeko Mugimendu Feminista (ordezkari 1)	<input checked="" type="checkbox"/>
Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria	
Elhuyar	<input checked="" type="checkbox"/>

Gai zerrenda:

Hasteko eta behin gai-ordena aldatzea eta seigarren puntua (Eskualdeko herrien erantzuna finantzaketa partekaturako proposamenari eta dinamizatzaileren kontrataziorako proposamena aurkeztu) bigarrenera ekartzea adostu dugu.

1. Geratzen diren bilera eta urrats nagusien kronograma aurkeztu

2022 urteko **kronograma eta falta diren bileren datak partekatu** ditugu.

HITZORDU NAGUSIAK	2022ko hilabeteak											
	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11	12
Lantalde Politiko Teknikoaren bilerak: Urtarrilak 17, Apirilak 4												
Talde Eragilearen bilerak: Urtarrilak 26, Martxoak 16												
Gune Zabala: Martxoak 30												
Emakumeen Etxeko 1. eraikina ireki												
Emakumeen Etxeko 2. eraikina ireki												

2. Eskualdeko herrien erantzuna finantzaketa partekaturako proposamenari eta dinamizatzaileren kontrataziorako proposamena aurkeztu

Eskualdeko 27 udalei abendu hasierarako egindako bilera-deialdira 18 herrietako ordezkariak bertaratu ziren. Emakumeen Etxearen proiektuaren inguruko informazioa eman zitzaizen, eta tartean finantzaketa partekatuaren proposamena aurkeztu zitzaizen. Bertaratu zirenei zein ez zirenei, korreo

bidez bidali zitzairen bileran aurkeztutako informazio guztia. **Bi zalantza edo beldur nagusi** atera ziren bileran:

- Emakumeen Etxeak estali egingo duela herrietan dagoeneko badauden berdintasun plangintzak.
- Emakumeen Etxea, dinamizatzailea eta jarduera nagusiak Tolosan zentralizatzea.

27 herriei urtarrilaren 10 arteko epea eman zitzairen **finantzaketa partekatuaren proposamenari erantzuna** emateko. Hau izan da erantzuna:

<ul style="list-style-type: none"> • Ez dira proiektura batuko: Abaltzisketa, Hernialde eta Belauntza
<ul style="list-style-type: none"> • Orendainek gaia plenora eramango du hurrengo astean
<ul style="list-style-type: none"> • Ez da lortu Albizurrekin hitz egitea (Agurtzak eta Aitanak badute kontaktua eta bideratuko dute)
<ul style="list-style-type: none"> • Gainerako guztiak proiektura batuko dira

Erantzuna eman ez duten herrien jarraipena egingo du Tolosako Udaleko berdintasun-teknikariak eta jarraian, Tolosako Udalak berriro egingo du herri bakoitzak jarri behar duen diruaren kalkulua.

Beharrezkoa izango da **28 herrien arteko hitzarmen bat** egitea finantzaketa partekatuaren xehetasun guztiak bertan bildu daitezzen. Tolosako Udaleko ordezkariak bertako idazkariarekin hitz egingo dute hitzarmenak nolakoa izan behar duen jakiteko: zer nolako klausulak izan behar dituen, zenbateko epea izango duen hitzarmenak.

Bestalde, kronograma jarraituz, 2022ko irailean lehenengo eraikina martxan jarriko da beraz, 2022ko lau hilabete horietan sortuko diren gastuetarako herri bakoitzak egin beharreko ekarpena zehaztu beharko da. Herri txiki gehienetan oraindik ez dira aurrekontuak onartu beraz, kopuruak zehaztuz gero, aurrekontuetan sartu daiteke eta bestela moldatu egin beharko dira.

Dinamizatzailearen kontratazioarekin lotuta, forma juridikoa emateko bideak hitzarmena edo elkarte aipatu dira orain arte baina herrien eskaera izan da Tolosaldea Garatzenen bidez egitea. Ingurumen-teknikariarekin esaterako, horrela egiten da, bere ordainketaz arduratzen dira zerbitzua erabiltzen duten udalak. Beraz, Tolosaldea Garatzeni proposatzeko konpromisoa hartu dute Asteasu eta Berastegiko alkateek, honek azter dezan zein aukera dauden dinamizatzailea barneko zerbitzu bezala eskaintzeko. Proposamena aurkeztu dute, orain lehendakariak zuzendaritzan planteatuko du, eta honen erantzunaren arabera gaia administrazio kontseilura eraman beharko da, ondoren berriz, batzar orokorrera. Batz bestea, apirila eman dezake azken erabakia jakinarazteko baina administrazio kontseiluaren erabakiaren arabera hasi ahal izango da urratsak ematen. Proposamen hori ez balitz egoki ikusiko, elkarteak sortu edo hitzarmena egingo litzateke. Azken honi zailtasun hau ikusten zaio: udal batek egin behar du kontratua besteen izenean eta I. kapitulutik jarri beharreko diru kopurua eduki beharko du. Idazkari lanak nork edo nola egin ere adostu beharko da.

Dinamizatzailearen kontratazioa lan-poltsetatik baino **deialdi ireki bidez** egitea egokiagoa ikusten da. Hiru hilabete beharko dira horretarako. Irailerako dinamizatzaileak aukeratuta egon beharko du. Egoki ikusi da Emakumeen Etxea ireki aurretik dinamizatzailea lanean astea.

3. Etxearen obren segimendua

Fatxada aldaketa egin da eta ez du behar bizilagunen oniritziarik, onartuta dago. **Pleguak eginda daude, eta jarraian etorriko da fiskalizazioa.** Behin argitaratutakoan 30 egun egongo dira proiektuak aurkezteko. Adjudikatu eta obrak hasi bitarte hilabeteko epea egongo da, eta behin obrak hasita zortzi hilabetetan burutu beharko dira; bi eraikinak batera egingo dira. Hirigintza Sailak

jarraipena egingo du eta bermatuko du aurrena lehenengo eraikina egitea eta gero bigarrenarekin jarraitzea.

Mugimendu Feministako ordezkarien partetik zalantza agertu da kronograma beteko ote den eta lehen eraikina irailerako irekita egongo ote den. Tolosako Udaletik jakinarazi da kronograma hirigintzako teknikariek egin dutela.

Aireztapen eta berogailu sistema nolakoa izango den informatzea eskatu da, aireztapena bereziki giltzarri bihurtu baita pandemia egoera honetan. Informazio hori aurreratu zen bere garaian baina berriro begiratu eta jakinaraziko da.

Obrak egin bitartean, **altzarien kontratua** martxan jarriko da. Horretarako ere pleguak egingo dira aurrekontua handia delako. Hirigintzako arkitektoak Talde Eragilearekin kontrastatu nahi du altzarien aukeraketa, gutxienez areto nagusikoak eta sarrerakoak. Horretarako, lantalde bat sortzeko proposamena egin du, bai altzarien aukeraketarako zein eraikinaren jarraipena egiteko. Asmoa da Errenteriako Emakumeen Etxea bisitatzea eta bertako altzariak ikusi eta aztertzea. Era berean, Tolosako emakume artisau batekin hitz egiteko asmoa dago altzari berezi batzuk enkargatzeko honi.

Lantalde hori sortzeko proposamena egingo da hurrengo Talde Eragilean.

4. Azken bileran aurkeztutako kudeaketa-ereduaren eta erregelamenduan zehaztutako gainerako atalen inguruko ekarpenik balego, hauek aurkeztu

Aurreko bileran, Talde Eragileko lanketak partekatzerakoan, *kudeaketa-eredua*, *erabiltzaileak* eta *erabiltzaileen eskubide* eta *betebeharrak* atalak aurkeztu genituen. Xehetasun asko biltzen dituzten dokumentuak izanik, lasaiago begiratu eta ekarpenak egiteko tartea zabaldu genuen. **Ez da ekarpenik aurkeztu** beraz, itxiztat eman ditugu.

Kudeaketa-ereduari Talde Eragileak gehitutako xehetasun bat aipatu dugu: dinamizatzaileak eta Tolosako Udaleko berdintasun-teknikariak eskualdeko herrietako Gizarte Zerbitzuetako teknikariek ere harremana edukiko dute, **batez ere indarkeriarekin lotutako gaiei dagokienez**.

5. Talde Eragileko lanketak partekatu

Etxearen erregelamendua osatuko duten gainerako atalak lantzen jarraitzen dugu Talde Eragilean. Gogoratu dugu lehen fasean landu zirela atal hauek eta orain horiek osatzen ari garela. Azken Talde Eragilean **helburu eta printzipio gidariak** eta **jarduera eta zerbitzuak** atalak landu genituen. Horretarako, Gipuzkoako Emakumeen Etxeen ezaugarriak biltzen dituen Gipuzkoako Aldundiaren lanketa erabili dugu eredu gisa. Etxearen helburuei bat gehitzea erabaki da: indarkeria matxista ikuspegi integraletik lantzea. Horrela geratuko da **helburuen atala**:

03 ZERTARAKO Emakumeen Etxe bat Tolosan? (Helburuak)

GUTASUN BATEN PARTE SENTITZEKO

- Gertutasuna eta konfiantza eskaintzeko, entzuna eta ulertua izateko.
- Parte sentitzeko eta parte izateko.
- Seguru eta babestuta sentitzeko.
- Libre izateko.
- Aisialdiko jarduerak lantzeko, giroari arreta berezia jarrita.

AHALDUNTZEKO

- Informazioa jasotzeko eta ikasteko. Garapenerako gunea izateko.
- Emakumeak etengabe ahalduntzeko: **Jabetze Eskola**.
- Feministak sortzeko laborategia izateko, feminismoaren inguruko sentsibilizazioa lantzeko.

SAREAK ERAIKITZEKO

- Emakume anitzak (adina, jatorria, klasea, ideologia, gaitasun...) elkartzeko, saretzeko eta sinergiak lantzeko.
- Eskualdeko mugimendu feminista sendotzeko.
- Eskualdeko emakume guztien indarrak batzeko.
- Emakume-taldeen egoitza izateko.

INDARKERIA MATXISTA IKUSPEGI INTEGRALETIK LANTZEKO

Baliabide publiko komunitarioak eta tresna kolektiboak eskaintzea

ERALDAKETA SOZIALERAKO

Eraldaketa eraldaketaren ikuspegitik jendarteko eremu guztietan **politikoki eragiteko** (behatoki kritikoak): elkarte gastronomikoak, ikastetxeak, jaiak, enplegua, zaintza-lanak, etab.

Printzipio gidarrietan berriz, beste bi gehitu dira: "Irigarria, sarbide errazekoa" (esanahi da emakume guztiak izango dutela bertan lekua, irekia izango dela) eta "Jabetza publikoa. Publiko komunitarioa". Honela geratuko da **printzipio gidarien atala**:

03 PRINTZIPIO GIDARIAK (Nolakoa)



Jarduera eta zerbitzuen atalean berriz, hauek zerrendatu ziren lehenengo fasean:

03 ETXEAREN JARDUERAK ETA ZERBITZUAK

Etxearen jarduerak Etxean nahiz Etxetik kanpora, Tolosan zein Tolosaldeko beste udalerrietan antolatuko dira

Jardueraren arabera, zaintza-zerbitzua jartzea baloratuko da

ETXEA EZAGUTARAZTEKO, HARREMANAK ERAIKITZEKO ETA BERDINTASUNA/KONTZIENTZIA FEMINISTA SUSTATZEKO JARDUERAK
Ate irekiak
Emakumeen Etheen arteko topaketak
Tailerrak; hitzaldiak; ikastaroak; mahai-inguruak; jardunaldiak; monografikoak...
Batzarrak; eztabaidatzeko espazio kritikoak; topaketak; hausnarketak;...
Jarduera ludikoak (jaiak) edo gastronomikoak (bazkariak, afariak, meriendak)
Jarduera kulturalak: erakusketak, kontzertuak, irakurle-klubak, zine-forumak...
Kirol-jarduerak; mendi-martxak
Kaleko ekintza zuzenak: espazio publikoan emakumeen ikusgaitasuna handitzeko ekimenak; manifestazioak; performanceak; inauterietako konpartsa; etab.
Ekimen solidarioak (genero-ikuspegiarekin)
Maskulinitateen inguruko tailerrak


03 ETXEAREN JARDUERAK ETA ZERBITZUAK

Etxearen jarduerak Etxean nahiz etxetik kanpora, Tolosan zein Tolosaldeko beste udalerrietan antolatuko dira

Jardueraren arabera, zaintza-zerbitzua jartzea baloratuko da

ETXEAREN BESTELAKO JARDUERAK
Aholkularitza-zerbitzuak: psikologikoa (banakakoa zein taldekakoa), juridikoa, sexualitatearen ingurukoa, homologazioa, laborala, etorkinentzako harrera
Ahalduntzeko guneak edo dinamikak
Behatoki kritikoa. Azterketak: mapeoak, diagnostikoak, ikerketa-bekak
Denboraren bankua
Emakume sortzaileen ikusgaitasunerako gunea
Esparru desberdinetan esku hartzeko egitasmoak

Orain egin dugun ariketa izan da, zerrendatutako haien artean lehentasunak ezartzea. Hauek dira lehenetsi diren jarduerak eta zerbitzuak:



Ahalduntzeko gune eta dinamikaren barruan hau zehaztu da:

- Jatorri desberdinetako emakumeen ahalduntze taldea
- Desgaitasuna duten emakumeen ahalduntze taldea
- Indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen taldea

Behatoki kritikoa. Azterketak egitearen barruan berriz:

- Dokumentazio gunea

Talde Eragilean aipatu zen, lehenetsunak ezarri arren **jarduera eta zerbitzu guztiak direla garrantzitsuak** eta denak kontuan eduki behar direla emakume anitzen beharrak desberdinak direlako.

Erregelamenduko atalen baitan, hurrengo Talde Eragilean dinamizatzailearen profila eta funtzioak landuko dira, eta azken Talde Eragilean berriz, Etxearen funtzionamendua.

6. Talde Feministetako ordezkariak eskualdeko emakumeei bidalitako email informatzailearen eta jasotako erantzunaren berri eman.

Aurreko Lantalde Politiko Teknikoan atera zen beharretako bat izan zen Emakumeen Etxearen **proiektua herrietan (ordezkari politiko zein emakumeei) gogorarazi eta zabaltzeko beharra** zegoela. Zentzu horretan, eta Udalak jartzera doazen dirua erabilgarria dela ikus dezaten, herritarren (emakumeen) partetik eskaria edo bultzada izatea beharrezkotzat jo zen. Horretarako, Lantalde Politiko Teknikoan parte hartzen duten Mugimendu Feministako ordezkariak konpromiso hau hartu zuten: Talde Eragileko kide bezala, parte-hartze prozesua hasi aurretik egindako bileretan lortutako emakumeen kontaktuei email informatzaile bat bidaltzea proiektua zertan den azalduz eta beraien herrietako udaletara jotzea proposatuz, udal arduradunei proiektuaren beharraz ohartarazteko. **200 emakume ingururi bidali zitzaizen emaila**, ez zen erantzunik edo galderarik jaso. Ondoren Tolosaldeko emakume dezente dauden (80 bat) whatsapp taldera bidali zen mezua eta hortik bai jaso ziren hainbat mezu galdetuz ea eskaera formala egin behar zen udaletan edo eskaera eredu zehatzik ba ote zegoen. Ezezkoa erantzun zitzaizen, bai formalki zein informalki egin zitekeela eskaera azalduz, baina garrantzitsua zela proiektuari buruzko interesa agertzea udaletan. Bakan batzuk esan zuten joko zutela baina ez dakite zein herrietakoak diren. Momentuz, ez dute beste ezer jaso.

Gune Zabalari begira, eta bertarako gonbidapena eginez, beste email bat bidaltzekotan geratu dira.

7. Besterik

Lantalde Politiko Teknikoaren hurrengo bilera-eguna **apirilaren 4an 17:00etan** Tolosako Udaleko pleno-aretoan egitea adostu dugu.

Hartutako konpromisoak:

KONPROMISOA	ARDURADUNA	DATA
Finantzaketa partekatua erantzuna eman ez dioten herrien jarraipena egin: Orendain eta Albiztur	Tolosako berdintasun-teknikaria	Urtarrila-Otsaila
Herri guztiek finantzaketa partekatua erantzundakoan, bakoitzak egin beharreko ekarpen ekonomikoa kalkulatu	Tolosako Udala	Apirilak 4
Tolosako Udaleko idazkariarekin kontsulta egin 28 herrien arteko hitzarmenak nolakoak izan behar duen jakiteko	Tolosako Udala	Apirilak 4
Dinamizatzailearen kontratazioa	Asteasu eta Berastegiko alkateak	Apirilak 4

Tolosaldea Garatzenen bidez egingo den ala ez argitu		
Etxearen aireztapen eta berotze sistema nolakoa izango den informatu	Tolosako berdintasun-teknikaria	Urtarrila-Otsaila
Proiektuaren pleguak publiko egiten direnean abisatu	Tolosako Udala	Otsaila-Martxoa
Eskualdeko emakume kontaktuei bigarren email informatzailea bidali Gune Zabalerako deialdia eginez	Mugimendu Feministako ordezkariak	Martxoa